

Produktzio-Garapen Proiektuko Arduraduna Kolonbian

Deskribapena

Agirre Lehendakaria Fundazioa (ALF) euskal kasua eta giza garapen iraunkorra hedatzea helburu nagusitzat duen Euskal Herriko fundazio bat da.

Egun, ECOMUN (FARCekeo gudari ohien kooperatiba), LKS eta ALECOPEkin (Mondragon taldeko enpresak) elkarlanean ari da Europar Batasunak, AECIDek, Eusko Jaurlaritzak eta Kolonbiako Gobernuak finantziatutako proiektu batean.

Proiektuaren helburuak FARCekeo gudari ohien gizarteratzea, Kolonbiako bake prozesuaren sendotzea eta adiskidetzea bultzatzea dira.

Proiektuak, oro har, hainbat ekintza aztertzen ditu. Kasu honetan, ALF Proiektuaren Arduraduna izango den pertsonaren bila dabil, zehazki, arrain ekoizpen proiektuaren ezarpenari dagokionez. Proiektu honek hiru eragile nagusi ditu: 1) EB finantzatzaile gisa, 2) ALF EBrekin sinatutako kontratuaren sinatzaile gisa, 3) ECOMUN ekintzaren koeskatzaile eta onuradun gisa.

Proiektuak 30 hilabeteko iraupena du (2019ko apiriletik 2021eko urrira arte).

Lanpostuaren eginkizunak eta erantzukizunak

- Arrain ekoizpen proiektuaren exekuzioa gainbegiratzea, batez ere funts ekonomikoen kudeaketari dagokionez.
- Arrain ekoizpen proiektuari dagokionez, EBk ALFrekin izenpetu duen kontratuan ezarritako eginbeharrak betetzea: komunikazioa, txostenak, koordinazioa.
- ALFri proiektuaren martxaren berri eman eta fundazioak Kolonbian dituen interesak bermatzea.
- ECOMUNi proiektuaren gauzatzean lagundu.
- Kolonbiako koordinazio eta jarraipeneko komizio zein erakundeetan ALF ordezkatzeta.

Lanposturako gutxieneko eskakizunak

- Gutxienez, 5 urteko esperientzia nazioarteko lankidetzako proiektuen kudeaketan eta 2 Kolonbian izandako proiektuetan.
- Kolonbiako errealitatearen ezagutza eta esperientzia.
- Proiektuen kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren ezagutza.
- Proiektua irauten duen bitartean Kolonbian bizitzeko prest egotea.
- Gazteleraz bikain mintz eta idaztea.
- Bulegotika ezagutzak: (Word, Excel, Power Point, Skype, etab.)

Bereziki balioetsiko da

- Nekazaritza eta abeltzantza, ekonomia edo antzeko titulazioa.

- Pizikulturaren graduondoa edo masterra.
- EBk finantzaturako nazioarteko lankidetzako proiektuen kudeaketan esperientzia, bereziki, bake eta gizarteratze arloetan.
- Probatutako esperientzia landa garapenerako proiektuetan, horietatik gutxienez 4 arrain-hazkuntza arloan.
- Proiektuen kudeaketan eta talde koordinazioan esperientzia.
- Ingelesez mintz eta idaztea.
- Esperientzia gizarte zibileko erakundeekin eta instituzioekin harremanetan, hobe Kolonbian.

Balioetsiko diren beste gauzak

- Unibertsitate hezkuntza.
- Kooperatiba ereduaren ezagutza edo esperientzia.
- Gizarte parte-hartzearen eta gizarte berrikuntzaren dinamiketan ezagutza.

Lanpostuari lotutako gaitasunak

- Komunikazio, negoziazio eta harreman pertsonaletarako gaitasuna.
- Talde batean lan egiteko gaitasuna.
- Ezusteko gertaerei erantzuteko iniziatiba eta gaitasuna.
- Elkarrizketa eta lan-taldeak errazteko gaitasuna.
- Bakearen eta adiskidetzaren baloreekin konpromisoa.
- Prozesu eta produktu ugarien kudeaketan eta koordinazioan trebea izatea.

Eskaintzen duguna

30 hilabetetarako kontratua eta eskaintako lanpostuari dagokion ordainsaria, pertsona hautagarriaren arabera negoziatu daitekeena.

Hautagaitzak aurkezteko epea eta modua

Curriculum vitaeak openakademia@agirrecenter.eus helbidera bidaliko dira. Aurkezpen labur bat, curriculum eta lanposturako beharrezkoak diren eskakizunen, balioetsiko diren elementuen eta eskatutako gaitasunen inguruko azalpen motza izango dute.

Aurkezteko epea 2019ko apirilaren 3tik 20ra izango da.